

SIRIMIRI FILMS PRESENTS, IN ASSOCIATION WITH KATZ ESTUDIO AND GARIZA FILMS,
THE PARTICIPATION OF... AND THE SUPPORT OF GOBIERNO... DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA

gaz-teak

2020
Best Basque Short Film
SGAE Foundation
Best Script Award
Bilbao 2020

24 FESTIVAL DE MÁLAGA
SECCIÓN OFICIAL
CORTOMETRAJES DE FICCIÓN
BIZNAGA DE PLATA
PREMIO DEL PÚBLICO

24 FESTIVAL DE MÁLAGA
SECCIÓN OFICIAL
CORTOMETRAJES DE FICCIÓN
BIZNAGA DE PLATA
A LA MEJOR ACTRIZ

PREMIOS



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

362 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Abendua

POLVO SOMOS POIIVO SOMOS



A SHORT FILM DIRECTED BY ESTIBALIZ URRESOLA SOLAGUREN

JONE LASPIUR GOIZE BLANCO

ITZIAR AIZPIURU KLARA RADIOLA PATXI SANTAMARÍA ILARGI MOLINILLO TXEMA BLASCO

Nabarmen^{tze}koak

> “Polvo somos” 2022ko Goya sarietarako aurrez hautatutako 15 film laburren zerrendan sartu da

- > Paintball eta Afrikako perkusioa jarduerak doan
- > Musika eta Zure Begirada proiektua

SIRIMI
FILMS

itb

Getxo Ekinez programaren barruan Paintball eta Afrikako perkusio jarduerak doan

Gazteria zerbitzuak bi jarduera berri antolatu ditu aire zabalean, doan, abenduaren 11 eta 17rako. Getxo Ekinez programaren barruan daude ekintzok, COVID-19aren ondorio sozio-ekonomikoei aurre egiteko.

11 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude eta Zornotzara Paintball praktikatzeko txangoa eta Afrikako perkusio tailerra dira. Bi jarduera horiek irisgarriak dira pertsona guztientzat.

- **Paintballa.** Abenduak 11, larunbata. Zornotzara autobusez joatea. Irteera 09:00etan (Romoko markesinak, Gorbeia kalea eta Algorta, geltokia plaza) eta itzulera 14:30ean. 50 plaza. Izen-ematea abenduaren 9ra arte, osteguna, 12:00etan.

- **Afrikako perkusio-tailerra.** Abenduak 17, ostirala. Algortako San Nikolas plazan. Bi talde: 17:30-18:30 eta 19:00-20:00. 12 plaza taldeko. Izen-ematea hilaren 15era arte, asteazkena, 12:00etan.

Izena emateko: gaztebulegoa@getxo.eus (izena eta ikastaroa adieraziz, baita telefono-zenbaki bat). Telefonoak: 94 466 03 53 eta 688 88 09 85.



Musika eta Zure Begirada proiektua

Getxoko eCivis elkarteak Musika eta Zure Begirada izeneko proiektua garatzen ari da. Foru Aldundiaren laguntzarekin, 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutilen gaitasun kritikoaren garapena sustatzea du helburu, abestiek genero-estereotipoak, indarkeriak eta mikro-indarkeriak erakitzean duten eragina aztertuz eta hausnartuz; izan ere, ez gara beti jabetzen harreman afektibo-sexualetan duten eraginaz.

Horretarako, ordu eta erdiko bi lan-saio proposatzen ditu, non go-goeta eta analisis sormen-lanarekin uztartzen diren, estereotipo horiek hautsiko dituzten musika-baliabideak eta ikusizko baliabideak osatzeko. Lortzen diren emaitzen multzoa emaitzen txosten batean zehaztuko da eta txosten hori ere amaierako itxiera-ekitaldi baten bidez jakinaraziko da.

Informazio gehiago: info@ecivis.eus helbide elektronikoan eta 620237036 telefonoan.

BEKAK SARIAK

****Erronka globalen aurrean, gazteak martxan**** Sariak elkartasuna, garapenerako lankidetzeta eta Euskadiko eta beste lurralde batzuetako 18 eta 30 urte arteko gazteen artean elkartrukea sustatzeko ekimen berrientzako. 33 sari: 3.000 euroko 3, 1.000 euroko 10 eta 500 euroko 20. Proiektuak aurkezteko epea: abenduaren 9ra arte. Informazioa: www.gazteakukera.eus

***Vulcanus bekak Japoniako enpresatan praktikak egiteko** unibertsitateko ikasleentzako (informatika, ingeniariaritz, kimika, elektronik, bioteknologia, fisika, telekomunikazioak...) Zenbatekoa: 1.900.000 yen bidaierako + ostalua enpresaren kontura. Eskara: 2022ko urtarilaren 1era arte. Argibideak: <https://labur.eus/ZQbss>, vulcanus@eu-japan.eu. Europako Bulegoa (Belgika): + 32 (0)2 282 37 15.

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Abendua

Hilak 3, ostirala: TAILERRA: GYNKANA EUSKARALDIA

Hilak 4, larunbata: IRTEERA: ZINEMA

Hilak 7, asteartea: SUKALDARITZA: TXOKOLATEA HODEIREKIN

Hilak 10, ostirala: IRTEERA: GABONETAKO PASEOA

Hilak 16, osteguna: EKINTZA: GAZTELEKUA APAINDU

Hilak 18, larunbata: IRTEERA: KITCHEN ACADEMY

Hilak 21, asteartea: EKINTZA: POSTALAK

Hilak 23, osteguna: EKINTZA: BUZTINEZKO JAIOTZA

Hilak 29, asteazkena: IRTEERA: UGP

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Abendua

Hilak 2, osteguna: ASANBLEA: URTARRILEKO PROGRAMAZIOA

Hilak 3, ostirala: EUSKARALDIA

Hilak 4, larunbata: KARAOKEA

Hilak 14, asteartea: JOLASA: ZELAI ERREA

Hilak 18, larunbata: IRTEERA: LAUREN GETXO ZINEMAK

Hilak 21, asteartea: ESKULANA: GABONETAKO BOLAK

Hilak 22, asteazkena: ESKULANA: GABONETAKO POSTALA

Hilak 29, asteazkena: IRTEERA: U.G.P.

Hilak 30, osteguna: MASTER CHEF: TXOKOLATADA

Edizio hau itxerakoan jarduera batzuk ez zeukaten eguna zehaztuta. Kontsultatu egutegia hemen: [HYPERLINK](https://hyperlink.com) "mailto:gauegungazteleku@getxo.eus" gauegun-gazteleku@getxo.eus. Tel.: 688 840 356 eta 94 466 00 22



Katz Estudio Audiovisual enpresak, Wanted lehiaketan saritua 2016an, filmaketan parte hartu du

“Polvo somos” 2022ko Goya sarietarako aurrez hautatutako 15 film laburren zerrendan sartu da

Sirimiri Filmsen Polvo somos film laburra, Gariza Films eta Getxoko Katz Estudio enpresaren ekoizpen elkartuarekin ondutako filma, 2022ko Goya sarietarako aurrez hautatutako fikziozko 15 film laburren “shortlist” zerrendaren parte izan da. Azkenean ezin izan den arren, hautatu ez baitute, zerrenda horretan egotea pozteko arrazoi bat da Katz Estudioarentzat, 2016ko Wanted jaialdian saritutako enpresa eta GETXOEXPRESS film laburren Jaialdiaren bultzatzaile, eta lanean jarraitzera animatzen ditu. “Ekoizle elkartu gisa parte hartzen dugun lehen film laburra izan da, film laburra ekoizteko zuzendaritza egiteaz gain. Estibaliz Urresolarekin film laburra egitea eta jaialdian zeraman ibilbidea ikusteak harro egoteko modukoa zen, beraz, zerrenda atera zenean eta ‘Polvo somos’ sartuta zegoela ikusi genuenean ezin izan ginen pozago egon”, adierazi dute Katz Estudiotik.

Azaroa hilabete gogorra izan da enpresarentzat.

Goya sarietarako kanpaina egitearekin batera, Estibaliz Urresolaren hurrengo film laburra filmatzen aritu dira, Cuerdas izenburuko filma. Beraz, oso hilabete gogorra izan da. “Hautagaien artean zaudenean, publizitate-lana, informazio-bidalketak eta proiektzioak hasten dira, akademikoei film laburra erakusteko, botoa eman dezaketenean eta, azkenik, zein lan egongo diren izendatuta erabakitzen duten pertsona guztiak. Oraingoan ezin izan da, hala ere film laburrak egiten jarraituko dugu, istorioak ahalik eta ikusle gehienengan iristeko asmoz”.

Film laburra

Estibaliz Urresolaren gidoi eta zuzendaritza pean, Aneren istorioa kontatzen du, bere jaioterria itzultzen denean bere aitoren ezusteko hiletara. Itzulerak berekin dakar bere familiako emakumeekin berriro elkartzea. Ehorztetxearen aldetik anomalia batzuk izan daitezkeela susmatzen duenean, denak itxura arraroa hartzen du.

Aktoreen artean Jone Laspieur (aktore errebelazioaren 2020ko Goya sariaren irabazlea), Itziar Aizpuru (Loreak, 80 egunean), Goize Blanco (Veneciafrenia, Los favoritos de Midas) eta Clara Badiola (Nora, Amama) daude.

Katz Estudio Audiovisual

Itxaso Frau Terradillosek eta Ana Angulo Umaranek osatzen dute Katz Estudio Audiovisual. Enpresa Wanted 2016 programan jasotako sariaren ondorioz sortu zen, Gazteria Zerbitzuak eta Getxolan Sustapen Ekonomikoaren arloak bultzatutako programa, Getxoko merkataritza-establezimenduetarako sustapen-bideo batzuk egiteko proiektu baten ondorioz.

Bere ekimenen artean, GETXOEXPRESS Film Laburren Jaialdia antolatzen du. Urtero egiten da gure herrian jaialdi hori, eta, azken edizioan, Getxo plató bihurtzea eta 22 talde baino gehiago biltzea lortu zuen, 42 ordutan film labur bat asmatu, grabatu eta ekoinzi zutenak.



Wanted programako proiektuei laguntzeko tailerra

18 eta 30 urte bitarteko gazteen proiektuei laguntzeko Wanted programaren deialdi guztietan egiten den tailerrean 15 pertsonak hartu zuten parte. Tailer horretan, sei proiektu orientazio eta aholkularitza profesionaleko ibilbide osoari jarraitzen ari dira. Proiektuen gaiak askotarikoak dira: zinema, ingurumena, ekonomia zirkularra, webguneak, app-ak, etab. Tailerraren helburu nagusiak bete ziren: parte-hartzaile guztiek gainerako proiektuak ezagutzea eta elkarren berri izatea, eta

proiektu guztiek ekarpenak eta aholkularitza jasotzea, bai parte-hartzaileen aldetik, bai bertaratu ziren sektore bakoitzeko profesionalen aldetik.

Wanted programak 2009. urteaz geroztik gazte-proiektuak babesten ditu, finantzaketa, aholkularitza tekniko, orientazio eta beselako arazoengatik, proiektuak gauzatzeko zailtasunak dituztenak. Gaur egun, Gazteriarren Zerbitzuak eta Ekonomia Sustapenaren arloak bultzatzen dute programa hori.